



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/04/29

Enkarterriko Museoak lau kultur ibilpide antolatu ditu, eskualdeko altxor arkitektonikoak ezagutzeko

Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterriko Museoak, eskualdearen ondare arkitektoniko garrantzitsua erakusten dau joan dan martiaren 8tik, “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketan. Gorka Pérez de la Peña historiagileak lau urtez egin dauen ikerketa lana jasoten dauen erakusketa hori osatzeko, Museoak lau kultur ibilpide antolatu ditu, lehenengo erakusketea bisitetako eta horren ostean, Enkarterrin dagozan eraikin berezietako batzuk ikusteko. Horrez gain, Museoak erakusketarako bisita gidauak eskaintzen ditu asteburuetan, aurretik eguna eta ordua kontzertuta.

Pérez de la Peña ikerlariak zuzenduko ditu lau kultur ibilpideak. Dobakoak dira, aurretik izena emonda 94 650 44 88 eta 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo mezu elektronikoa bialduz enkarterrimuseoa@bizkaia.eus helbidera. Ibilpideak domeka honeetan egingo dira: maiatzaren 5ean, maiatzaren 19an, bagilaren 9an eta urriaren 6an; goizeko 10:00etan hasiko dira Enkarterriko Museoan, eta leku berean bukatuko dira 14:30 inguruan, “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketara egindako bisita gidauaren ostean eta egun bakoitzerako aukeratutako eraikinak ezagutzera autobusez joan eta gero.

“Garai berri baterako bi jauregi. XX. mendearen abiatzea” da maiatzaren 5erako antolatu dan lehenengo kultur ibilpidearen izenburua. Sodupen (Güeñes) dagon Hurtado de Saracho jauregia eta Trapagako Olaso jauregia bisitauro dira, biak be arkitektura estilo neo-euskaldunekoak, eta joan dan gizaldiaren hasieran eregitakoak. Hurtado de Saracho jauregia Manuel Ignacio Galindez arkitektoak eregi eban 1921ean, Lorenzo Hurtado de Saracho Bilboko abogaduak aginduta. Olaso jauregia, bere aldetik, 1908an egin zan, jatorriz Trapagakoa zan José Rufino de Olaso indianoak aginduta. Uste danez, arkitektoa José María de Basterra izan zan.

Hurrengo bisitea maiatzaren 19an, domekan, Museoen Nazinoarteko Egunean, izango da. Enkarterriko museoak “XX. mendeko legatua. Etorkizunerako ondarea” izeneko ibilpidea antolatuz ospatuko dau jardunaldi berezi hori. Bertan, joan dan gizaldiaren erdialdean eregitako eraikin bi bisitauro dira: Sollanoko (Zalla) ur araztegia eta Arangurengo (Zalla) Sortzez Garbiaren eleizea. Juan de Madariaga eta Lander Gallastegui arkitektoek diseinatu eban estilo funtzionalista daukan araztegia, eta 1962 eta 1966 artean egin zan. Sortzez Garbiaren eleizea Emiliano Amann arkitektoak egin eban. 50eko hamarkadako Modernotasun estilokoa, 1952 eta 1956 artean eregi zan.

“Betirako ondarea. XX. mendeko hileta-arte” izenburua daroan bagilaren 9ko jardueran, hiru hilerriren ondare arkitektoniko garrantzitsua ezagutzeko aukerea egongo da: Balmasedakoa, La Herrerakoa (Zalla) eta Carralekoa (Sopuerta).

Balmasedako hilerriak atari eta kapila neoklasikoak ditu, eta baita estilo eklektikoko kapilak be; La Herrerakoak, Ángel Galíndez arkitektoak 1895ean eregitako atari eta kapila eklektikoak ditu, eta Carralekoan azpimarragarria da 1910eko kapila modernista, Emilio Otaduy arkitektoak egindakoa.

Azkenengo kultur ibilpidea urriaren 6an izango da, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondareari buruzko Europar Jardunaldien barruan. . “Eliza eta jauregi artean jendea dibertitzen” izenburua daraman jardueran Beciko San Cosme eta Damian eleizea eta Hierro-San Martin jauregia bisitatu dira, Sopuertan dagozan XX. mendearen lehen erdialdeko eraikin bi.

Eleizea 1958an eregi eban erregistro funtzionalistan Rufino Basáñez arkitektoak, eta haren inguruan sortutako jai guneagaz erlazionauko da. Hierro-San Martin jauregiari jagokonez, Miguel de la Colina ingeniariak eregi eban 1928an, estilo erregionalistan, eta bertan arkitektura, artea eta aisia alkartzen dira, Goiko artistak 1929an, erromeria kostunbristea irudikatuz, egin eban horma-irudia dala eta.

Enkarterriko Museoak eskerrak emon gura deutseez arkitekturako harribitxi horreek ezagutzeko aukerea emongo daben persona, erakunde eta enpresa guztiei, euren jaubetzak zabaltzearen eta bisitetako aukerea emotearren. Zehatzago esanez, eskerrak emon gura deutseez euren laguntzarengaitik Hurtado de Saracho familiari, Ercilla Hoteles kateari, Trapagako Udalari, Arangurengo Sortzez Garbiaren parrokiari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Balmasedako, Zallako eta Sopuertako Udalei, Beciko San Cosme eta Damian parrokiari eta Gorabide Alkarteari.

Kultur ibilpideek, datorren irailaren 29ra arte Enkarterriko Museoan ikusi ahal izango dan “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketea osatzen dabe. Museoak izen bereko liburua be argitaratu dau, eta bertan erosi daiteke. Gorka Pérez de la Peña ondare arkitektonikoaren inguruko argitalpenaren eta ikerketa lanaren egileak zuzenduko ditu kultur ibilpideak.

Ikerketa lan horrek, 1870 eta 1975 artean Enkarterrin eregitako eraikin guztien inbentarioa jasoten dau, eskualdea modu zabalean eta historikoan ulertuta, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko udalerririk barru hartuta. 20 udalerritan dagozan 1.300 eraikin dira guztira, eta horreetatik 500 liburuan jasota dagoz. Batzuetan oso ezaguna ez dan arren, arkitekturaren ondore hori Enkarterriko eta baita Bizkai osoko eta Europa mailako ondarearen elementu garrantzitsuenetakoa da.

Erakusketea, bere aldetik, holango arkitektura moietaren elementu adierazgarrienetako batzuk erakusteko dago kontzeptualizauta. Amaia Garate eszenografoak diseinauta, eraikin azpimarragarrietako batzuen argazkiak jasoten ditu, eta irudiakaz, planoakaz, koadruakaz, beirategiakaz, azulejuakaz eta hormatan agertzen diran beste arte elementu batzukaz batera dagozan bitrinak eta piezak daukaz.

Erakusketea eta argitalpena Enkarterriko Museo ederra, berez be historiako bizi dan artelana, urteetan egiten ari dan ikerketa eta historiografia lanaren barruan dagoz. Museoa, mende luzez foru gobernuaren egoitzea izan zan Avellanedako Batzarretxe zaharra da. Sopuertan dagon eta Javier Barriok zuzentzen dauen museoa Bizkaiko Batzar Nagusien esku dago, eta Enkarterriko ondare historikoa, kulturala eta etnografikoa zabaltzeko behar handia egiten dau.

KULTUR IBILPIDEAK

Maiatzaren 5a, domeka: “Garai berri baterako bi jauregi. XX. mendearen abiatzea”

Ordutegia eta ibilpidea:

- 10:00. Enkarterri Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketera bisitea
- 11:30. Hurtado de Saracho Jauregira bisitea (Sodupe. Güeñes)
- 13:00. Olaso Jauregira bisitea (Trapagaran)
- 14:30 Enkarterriko Museora itzultzea

Maiatzaren 19a, domeka (Museoen Nazinoarteko Eguna): “XX. mendeko legatua. Etorkizunerako ondarea”

Ordutegia eta ibilpidea:

- 10:00. Enkarterri Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketera bisitea
- 11:30. Sollanoko (Zalla) Ur Araztegira bisitea
- 13:00. Arangurengo (Zalla) Sortzez Garbiaren eleizera bisitea
- 14:30 Enkarterriko Museora itzultzea

Bagilaren 9a, domeka: “Betirako ondarea. XX. mendeko hileta-arte”

Ordutegia eta ibilpidea:

- 10:00. Enkarterri Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketera bisitea.
- 11:30. Balmasedako hilerrira bisitea
- 13:00. La Herrerako hilerrira (Zalla) bisitea
- 14:00. Carraleko hilerrira (Sopuerta) bisitea
- 14:30 Enkarterriko Museora itzultzea

Urriaren 6a, domeka (Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondareari buruzko Europar Jardunaldiak): “Eliza eta jauregi artean jendea dibertitzen”

Ordutegia eta ibilpidea:

- 10:00. Enkarterri Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketera bisitea.
- 11:30. San Cosme eta Damian eleizera bisitea (Beci. Sopuerta)
- 13:00. Hierro-San Martin jauregira bisitea
- 14:30 Enkarterriko Museora itzultzea

Dobako jarduerak. Beharrezkoa da aurretik izena emotea 94 650 44 88 / 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo enkarterrimuseoa@bizkaia.eus helbidera idatziz



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
29/04/2019

El Museo de las Encartaciones organiza cuatro itinerarios culturales para conocer los tesoros arquitectónicos de la comarca

El Museo de las Encartaciones, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, muestra desde el pasado 8 de marzo el importante patrimonio arquitectónico de la comarca en la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”. Para completar esta muestra, que recoge el trabajo de investigación realizado durante cuatro años por el historiador Gorka Pérez de la Peña, el Museo ha organizado cuatro itinerarios culturales para visitar primero esta exposición y después recorrer algunos de los edificios emblemáticos que atesoran Las Encartaciones. El Museo ofrece además visitas guiadas a la exposición los fines de semana, concertando previamente día y hora con el museo.

El investigador Pérez de la Peña dirigirá los cuatro itinerarios culturales, que son gratuitos previa inscripción en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o escribiendo un mensaje a la dirección de correo electrónico enkarerrimuseoa@bizkaia.eus. Los itinerarios se realizarán los domingos días 5 de mayo, 19 de mayo, 9 de junio y 6 de octubre; comenzarán a las 10 horas en el Museo de las Encartaciones y terminarán en el mismo lugar hacia las 14:30 horas, tras una visita guiada a la exposición -“Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”- y tras desplazarse en autobús para conocer los edificios elegidos cada uno de los días.

“Dos palacios para una época nueva. El despegue del siglo XX” es el título del primer itinerario cultural, organizado el domingo 5 de mayo. Se visitarán el palacio Hurtado de Saracho en Sodupe (Güeñes) y el Palacio Olaso en Trapagaran, ambos de estilo arquitectónico nevasco y erigidos a principios del siglo pasado. El palacio Hurtado de Saracho fue construido por el arquitecto Manuel Ignacio Galindez en 1921, por encargo del abogado bilbaíno Lorenzo Hurtado de Saracho. Por su parte, el Palacio Olaso fue levantado en 1908, por iniciativa de José Rufino de Olaso, indiano natural de Trapagaran, siendo su probable arquitecto José María de Basterra.

La siguiente visita será el domingo 19 de mayo, Día Internacional de los Museos. El de Las Encartaciones celebrará esta jornada especial organizando el itinerario titulado “Legado del siglo XX. Un patrimonio para el futuro”, en el que se visitarán dos edificios construidos a mediados del siglo pasado: la Depuradora de aguas de Sollano (Zalla) y la iglesia de La Inmaculada de Aranguren (Zalla). Los arquitectos Juan de Madariaga y Lander Gallastegui diseñaron la depuradora, de estilo funcionalista y que se edificó entre 1962 y 1966. La iglesia de La Inmaculada es obra del arquitecto Emiliano Amann. De estilo Modernidad de los 50, fue construida entre 1952 y 1956.

Bajo el título “Patrimonio para la eternidad. Arte funerario del siglo XX”, la actividad programada el domingo 9 de junio permitirá conocer el importante patrimonio arquitectónico de tres cementerios: el de Balmaseda, el de La Herrera (Zalla) y el de Carral (Sopuerta).

El cementerio de Balmaseda dispone de una portada y capilla neoclásicas, así como de destacadas capillas de estilo ecléctico; el de La Herrera cuenta con una portada y capilla eclécticas construidas por el arquitecto Ángel Galíndez en 1895, y en el de Carral, destacan además de la portada, una capilla de estilo modernista de 1910, obra del arquitecto Emilio Otaduy.

El último itinerario cultural será el domingo 6 de octubre, dentro de las Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia. Con el nombre de “Entre iglesias y palacios la gente se divierte”, esta actividad incluye la visita a la iglesia de San Cosme y Damián de Beci y al Palacio Hierro-San Martín, dos edificios de la primera mitad del siglo XX ubicados en Sopuerta.

La iglesia, construida en 1958 en registro funcionalista por el arquitecto Rufino Basáñez, se relacionará con el espacio festivo nacido en torno a ella. En el Palacio Hierro-San Martín, construido por el ingeniero Miguel de la Colina en 1928 en estilo regionalista, se unen arquitectura, arte y ocio, gracias a la pintura mural que el artista Goiko realizó en 1929 representando una costumbrista romería.

El Museo de las Encartaciones agradece a todas las personas, instituciones y empresas que van a hacer posible conocer estas joyas arquitectónicas, abriendo sus propiedades para que puedan ser visitadas. En concreto, quiere dar las gracias por su apoyo a la familia Hurtado de Saracho, cadena Ercilla Hoteles, Ayuntamiento de Trapagaran, parroquia de La Inmaculada de Aranguren, Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, Ayuntamientos de Balmaseda, Zalla y Sopuerta, parroquia de San Cosme y San Damián de Beci y a la Asociación Gorabide.

Estos recorridos culturales complementan la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea” que se puede ver hasta el próximo 29 de septiembre en el Museo de las Encartaciones, que ha publicado también el libro del mismo título, a la venta en el centro museístico. Gorka Pérez de la Peña, autor de esta publicación y de la investigación sobre este patrimonio arquitectónico, dirigirá los itinerarios culturales.

Este trabajo de investigación recoge un inventario de todos los edificios construidos entre 1870 y 1975 en Las Encartaciones, entendiendo esta comarca en un sentido tan amplio como histórico e incluyendo los municipios de la margen izquierda y zona minera. Son un total de 1.300 edificios -localizados en 20 municipios- y de los cuales 500 están recogidos en el libro. Aunque en ocasiones poco conocido, este acervo arquitectónico es uno de los más importantes elementos del patrimonio, no sólo de Las Encartaciones, sino de toda Bizkaia e incluso a nivel europeo.

La exposición, por su parte, está conceptualizada para mostrar algunos de los elementos más relevantes de este tipo de arquitectura. Diseñada por la escenógrafa Amaia Garate, incluye fotografías de una selección de los edificios más destacados y contiene grandes muros de cartón que acogen vitrinas y piezas que conviven con las imágenes, los planos, cuadros, vidrieras, azulejos y otros elementos de artes decorativas que aparecen expuestos en la pared.

Tanto la muestra como la publicación se enmarcan dentro del trabajo investigador e historiográfico que lleva años realizando el precioso Museo de las Encartaciones, una obra de arte en sí misma que vive por y para la historia. Este museo es la antigua Casa de Juntas de Avellaneda, centro del gobierno foral durante siglos. Ubicado en Sopuerta y dirigido por Javier Barrio, este centro museístico perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, realiza una importante labor de difusión del patrimonio histórico, cultural y etnográfico de Las Encartaciones.

ITINERARIOS CULTURALES

Domingo 5 de mayo: “Dos palacios para una época nueva. El despegue del siglo XX”

Horario y recorrido:

- 10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones.1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”
- 11:30. Visita al Palacio Hurtado de Saracho (Sodupe. Güeñes)
- 13:00. Visita al Palacio Olaso (Trapagaran)
- 14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

Domingo 19 de mayo (Día Internacional de los Museos): “Legado del siglo XX. Un patrimonio para el futuro”

Horario y recorrido:

- 10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”
- 11:30. Visita a la Depuradora de Sollano (Zalla)
- 13:00. Visita a la iglesia de La Inmaculada de Aranguren (Zalla)
- 14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

Domingo 9 de junio: “Patrimonio para la eternidad. Arte funerario del siglo XX”

Horario y recorrido:

- 10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones.1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”
- 11:30. Visita al cementerio de Balmaseda
- 13:00. Visita al cementerio de La Herrera (Zalla)
- 14:00. Visita al cementerio de Carral (Sopuerta)
- 14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

Domingo 6 de octubre (Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia): “Entre iglesias y palacios la gente se divierte”

Horario y recorrido:

- 10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones.1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”
- 11:30. Visita a la iglesia Santos Cosme y San Damián (Beci. Sopuerta)
- 13:00. Visita al Palacio Hierro-San Martín (Sopuerta)
- 14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

Actividades gratuitas. Es necesaria la inscripción previa en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o a través del correo electrónico enkarterrimuseoa@bizkaia.eus